



Familiantzako Opera

Iñigo Casali

Ali Baba eta berrogei lapur



Gida didaktikoa

ABA  | BILBAO
OPERA


Ópera de Cámara
de Navarra

Lau ekitaldietako gida didaktikoa.

Obertura . Opera. Ganbera-Opera.

Lehen ekitaldia. Ali Babaren musika

1. Koadroa: Konpositorea
2. Koadroa: Ali Babaren musika
3. Koadroa: Orkestra eta zuzendaria

Bigarren ekitaldia. Ikuskizuna

1. Koadroa: Istorioa
2. Koadroa: Libretista
3. Koadroa: Jatorrizko istorioa
4. Koadroa: Pertsonaiak
5. Koadroa: Nortzuek egin dute posible istorioa

Hirugarren ekitaldia. Jarduerak

1. Koadroa: Opera-gida txikia
2. Koadroa: Ali Baba
3. Koadroa: Operari buruz
4. Koadroa: Haur lapurrak
5. Koadroa: Basamortua eta zirkua

Laugarren ekitaldia. Baliabide Didaktikoak.

OBERTURA



“*Hamelingo txirularia*” edo “*Enperadorearen traje berria*” bezalako izenburuen ostean, Nafarroako Ganbera-Operak “*Ali Baba eta berrogei lapurrak*” ekitaldi bateko opera aurkezten du, Iñigo Casaliren musikarekin eta Pablo Valdesen libretoarekin. Ganbera-Operaren bosgarren lana da eta Gayarre Antzokiaren laguntza eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso ditu.

Gainera, proiektu berri hau ABAO-OLBEekin batera ekoiztuta dago; elkarte honek berrogeita hamar urte baino gehiago daramatza nazio eta nazioarteko operaren erreferente izaten bere lanen kalitateagatik eta bere denboraldi egonkorren harrera handiagatik.

2008an *Ali Baba* ABAOn estreinatu zen eta arrakasta handi bat lortu ondoren, aurtengo berriro Arriaga antzokian eskainiko dizuegu.

GANBERA-OPERA

Nafarroako Ganbera-Opera duela sei urte jaiotako erakundea da, eta helburu du opera berriak eta errepertoriokoak ekoiztea eta agertokira eramatea. Nafarroan lan egiten duen erakundea izanik, NGOk gure erkidegoko kultur dinamizazioa sustatu eta arte eszenikoen eta musikaren esparru guztietan bertako artisten sormena bultzatu nahi du.

Gainera, NGOk antzerki-musika ikuskizunen ekoizpenean lan egiten du: zartzuela, antzerkia, antzerki musikala, operak eta musika-lan dramatizatuak. Gure asmo nagusia da publiko berriak sortzea, egungoak finkatzea eta publiko gazteenaren, hots, haur eta nerabeen zaletasuna operarekiko sustatzea.

NGO ez da ekoizpenera, eszenaratzerara eta musika-lanak antzeztera mugatzen, era berean hauen zabalkunde pedagogikoan ere lan egiten du, ikastaroak eta mintegiak antolatuz zein opera eta musika-generoei buruzko gida didaktiko eta programa interaktiboak argitaratuz.

Nafarroako Ganbera-Operak garatzen duen jarduera honako irizpideek zuzentzen dute: Ganbera-Formatua, berrikuntza, kalitatea, eta



bertako artista gazteen eta zaletasunaren sustapena. Ganbera-Operaren proiektuak helduei zein hurrei zuzentzen zaizkie, lehentasuntzat jotzen duen publikoa azken hauek badira ere.

NGO Nafarroako musikaren, antzerkiaren eta eszenaren arloan eskarmentu handia duten profesionalek osatzen dute. Sortu zenetik bost lan estreinatu ditu, bertan ehun pertsonak baino gehiagok hartu dute parte eta 15.000 ikusle baino gehiagoren txaloak jaso ditu.

LEHEN EKITALDIA: ALI BABAREN MUSIKA

1. Koadroa: Konpositorea



Iñigo Casali Sarasibar Iruñean jaio zen 1972ko urriaren 20an. Moko-txirula eta musikologiako karrera ikasi zuen. Bere jarduera profesionala hiru arlotan garatzen du: irakaskuntza, interpretazioa eta konposizioa.

Irakasle gisa:

1999ko irailetik Iruñeko “Pablo Sarasate” Goi Mailako Musika Kontserbatorioan lan egiten du moko-txirula eta ganbera-musika irakasle.

Interpretatzaile gisa:

Bi lan ezberdin egiten ditu: txirulari eta abeslari.

Txirulari gisa:

“Ensamble Durendal” taldeko kide da eta bertan jo eta jotzen du espainiar geografiako leku ezberdinetan (Iruñea, Santander, Burgos, Burgo de Osma, Zangoza, Orreaga eta abar). Iruñeko Katedraleko musika kaperako ohiko kolaboratzailea eta jotzailea da, baita Pariseko “Lacrimae Consort” Antzinako Musika Taldekoa ere.

Abeslari gisa:

2000ko martxotik Iruñeko ganbera-abesbatzako kide da tenor moduan; bertan kantu eta errepertorio eskolak jasotzen ditu Eugenia Echaren kantu-eskolaren eskutik. Ahots-teknikaren prestakuntza eta hobekuntza prozesu honen ondorioz, fazeta berri bat sortu du abeslari moduan, eta bakarlari aritu da zenbait lanetan: Handelen “*Mesías*”, Pepusch konpositore barrokoaren “*Eskalearen Opera*”, Cecil-en papera (Donicettiren “*Roberto Devereux*” operan), Claudio Monteverdiren “*Vespro della Beata Virgine*” lanean bakarlari, Purcellen

“*Santa Zeziliari Odak*” laneko tenor bakarlari. 2006ko abenduaren 22an Zaragozako Seon abestu zuen “*Los músicos de su Alteza*” taldearekin batera, eta haiekin errepikatu zuen Zaragoza eta Salamancan 2007ko otsailaren 12 eta 13an Monteverdiren madrigalak abestuz. 2007ko martxoaren 31n Charpentierren “*Te Deum*” eta Gorritiren “*Miserere*” abestu zituen Tolosan Tolosako Orfeoiaekin.

Konpositore gisa:

1992an lau gabon-kanta lehiaketa irabazi zituen Nafarroan urte berean konposaturiko gabon-kanta batekin.

“La troya” talde komiko-musikalaren kide-sortzailea, konpositore eta jotzaile izan zen bertan 1992-2000 bitartean. Talde honekin, 1995ean, “*Musikaren originaltasunaren*” aipamena jaso zuen Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako kirol eta gazteria institutuak antolaturiko “Antzerki-topaketetan”.

Abesbatza, ganbera-orkestra eta bakarlariantzako “*Gabonetako oratorioa*” lanaren egilea, Valladoliden estreinatua eta ondoren Vigon, Iruñean eta Los Arcosen interpretatua.

“*Txirula eta hari-laukoterako kontzertu*” baten egilea, Gijonen estreinatua 1998ko azaroan.

“*La casa del otro lado*” film laburraren musikaren egilea, lan honengatik Nafarroako Unibertsitateak antolaturiko “*Kino*” sarietarako proposatu zuten.

Hari-laukote baten egilea, 2001eko martxoaren 25ean estreinatua Iruñeko Zudadelako mistoen pabilioian estreinatua eta Oliteko talde ezberdinek aldi ezberdinetan interpretatua Madrilén, Iruñean...

“*Da pacem Domine*” abesbatza-lanaren egilea, Iruñeko Ganbera-abesbatzak eskatuta eta 2001eko ekainaren 12an estreinatua Iruñeko Zudadelako mistoen pabilioian eta ondoren Parisen eta Iruñean Iruñeko Ganbera-abesbatzak berak interpretatua.

Berak asmatutako “*Como la nieve*” izenburua duen gabon-kanten CD bat grabatu du “Producciones de la raíz” ekoizpen-etxearentzat.

Honako haurrentzako operen egilea: “*Hamelingo txirularia*”, “*Enperadorearen traje berria*” “*Ali Baba eta berrogei lapurrak*”, hala nola, hiru ekitaldiko “*Javier*” opera, 2006an Tokioko Opera Elkarteak eskatuta eta urte hartako azaroaren 2an Tokioko You-port antzokian estreinatua kritika eta publiko arrakastarekin.

"Hansel eta Grete" ipuinaren egokitzapenaren musikaren egilea, Donostiako *"Plaza"* jaialdiak eskatuta eta 2002ko ekainaren 23an arrakasta handiarekin Kursaalen estreinatua eta ondoren Iruñean, Noainen, Mutiloan, Antsoainen, Zizurren,... interpretatua.

San Antonio kirol eta kultura elkartearen *"Berrogeita hamargarren urteurrenaren himnoa"* konposatu du, erakunde horrek eskatuta eta Iruñeko ganbera-abesbatzak, Nafarroako Orkestra Sinfonikoak eta Iñigo Casalik berak tenor bakarlari grabatuta.

2. Koadroa: Musika.

Iñigo Casalik Opera honetarako konposaturiko musikak ekialdeko itxurako estiloa du, eta mila eta bat gauetako mundura bidaia egiteko balio nahi du. Partituran opera guztietako osagai tipikoak aurki ditzakegu: obertura, ariak, kontzertanteak, koroak, balletak, errezitatiboak,...

Opera obertura batekin hasten da; bertan, opera askotan bezala, musikak geroago garatuta entzungo ditugun ia gai guztiak dauzka:

Alí Babá y los cuarenta ladrones.
Ópera en un acto
OBERTURA
(Melodía de Alí)

Música: Iñigo Casali
Libreto: Pablo Valdés

dolce cantabile

Flauta



Berriro ere musika honen helburua opera publiko familiarrari hurbilaraztea da, ipuin hau era artistiko eta dibertigarrian kontatzeko, musika, antzerkia eta dantza batuko dituen ikuskizun bat sortuta. Operak une ezti ugari ditu, Ali Babak koban altxor guztiak deskubritzean abesten duenean, kasu.

Aria de Ali Babá

(fragmento)

Música: Íñigo Casali
Libreto: Pablo Valdés

Ali Babá

pleno

7

13

ff

19

Co-fres de o-roy bri-llan-tes, per-las ro-ba-das al mar, - - - - - sue-ño de luz y dia-man-tes pa-rael que quie-ra so-ñar, _____ so-ñar _____

Operak irauten duen ordubeteen, publikoa (haurrak zein helduak) ipuinean sartzea eta gozatzea nahi dugu. Protagonista musikarekin kontatutako ipuina da. Gure bertsioan, lapurrak haurrak dira eta ez gizon sendo eta bortitzak. Ipuina jatorrizkoan une batzuetan dagoen indarkeriarik gabe garatu dugu, baina istorioaren mamiari eutsita. Lapurrak haurrak izateak errazago egiten du umeak obrara hurbiltzea, helduak izango balira baino askoz ere identifikatuago sentitzen baitira haiekin. Horrela kanon hau daukagu operaren une gogorrenetariko batean, Osmanek, lapurren buruzagi maltzurak, jaten eman nahi ez dienean eta hauek aurre egiten diotenean:

En el bosque, camino de la escuela

Coro de ladrones(niños)

Música: Íñigo Casali
Libreto: Pablo Valdés

marcial

mf No ten-gáis mie-do de los la-dro-nes. No ten-gáis mie-do ma-más y pa-pás.

3 Só-lo que-re - mos vues-tros mi-llo - nes. Po-déis que-da - ros con lo de-más.

5 No so-mos va - gos ni ma-lhe-cho - res. aun que lo di - ga la au - to - ri - dad.

7 So mos pe que ños tra ba ja do res que lim-pian ca - sas por la ciu-dad.

9 *sibilino*
mp Di-ne-ro ne - gro, di-ne-ro bla - co. a quién le im-por - ta la ca-li-dad!.

11 Ro-ba-mos tien - das ro-ba-mos ban - cos y no ce-rra-mos por Na-vidad!.

13 *agresivo*
ff Ya no hay es-cue-la ya no hay lec-cio-nes. ¡Qué bien vi - vi-mos sin es-tu-diar!.

15 ¡No so-mos ni - ños, só - mos la-dro - nes!. He-mos na-ci - do pa - ra ro-bar.

17 No ten-gáis mie-do de los la-dro-nes. No ten-gáis mie-do ma-más y pa-pás.

19 Só-lo que-re - mos vues-tros mi-llo - nes. Po-déis que-da - ros con lo de-más.

21 *mp*
p Só-lo que-re - mos vues-tros mi-llo - nes. Po-déis que-da-ros con lo de-más.

3. Koadroa: Orkestra

“*Ali Baba eta berrogei lapurrak*” Operan hogeita bat atril dituen musika-talde bat dago, hau da, Iruñeko Orkestrako 21 musikariek hartzen dute parte.

Orain instrumentuak aurkeztuko dizkizuegu pixka bat hobeto ezagut ditzazuen.

Batzuk hari-familiakoak dira: Familia honetako instrumentuek, dituzten harien bibrazioaren ondorioz sortzen dute soinua. Hiru modutan izan daiteke: igurtziriko haria, esaterako, biolina, biola eta txeloa; hari kolpekatua, pianoa, adibidez; eta hari eutsia, harpa, kasu. Hemen igurtziriko hari-instrumentuak baino ez daude.



Biolina

Hari-instrumentuen artean txikiena da. Lau hari ditu altutik baxura bostunetan afinatuak. Sol klabean idazten

Biola:

Egun ezagutzen dugun biola XVI. eta XVII. mendeen artean jaio zen. Bere neurria biolinarena baino zertxobait handiagoa da. Lau hari dauzka eta do-sol-re-la notekin afinatzen dira (baxutik altura bostun bitartetan igoz). Irakurmen musikalerako hirugarren lerroan do klabea eta bigarrenean sol erabiltzen ditu (azken hau soilik notak altuera dezentara igotzen direnean).

Txeloia:

Biolontxelo edo txeloia igurtziriko harizko musika-instrumentua da, biolinaren familiakoa, eta neurriz eta erregistroz biola eta kontrabaxuaren artekoa. Arku bat hariekin igurtziz jotzen da eta instrumentua biolontxelo-jotzailearen hanken artean heldzen da.



Kontrabaxua:

Kontrabaxua harien familiako musika-instrumentu bat da, neurri handikoa. Normalean lau hari ditu, goranzko laudunek afinatua (Mi-La-Re-Sol, 4. haritik, baxuagoa, 1.ra, altuagoa), nahiz eta bostekoak ere badauden, bosgarren haria laugarrena baino Do edo Si altuagoan afinatzen da.


Haize-instrumentuak: Tutu baten barruan dar-dar egiten duen aire-zutabe baten bidez sortzen dute soinua.

Bi motakoak izan daitezke. Batzuk hauspodun eta mihidunak badira ere, orkestran arruntenak haize eta metalezkoak dira.

Zurezko haize-instrumentuak: Horrela deitzen dira tradizionalki zurezkoak zirelako. Egun ez dira guztiak halakoak.



Zeharkako txirula:



saikatzten baita. Bere oinarrizko erregistroa hiru zortzidunetakoa da eta do4tik (pianoaren erdiko teklaren soinua, nomenklatura anglosaxoian C3 deitzen dena) do7ra doa.

Oboea:



Oboea (frantsesez *hautbois*, "egur garaia, altua") haize-egurrezko familiako instrumentu bat da. Oboea jotzen duen musikaria oboelaria da. Ahokoa kontuz maneiatzeak eta airearen presioak tinbre-abaniko dinamiko eta zabala adieraztea ahalbidetzen diote jotzaileari. Tronparekin batera, oboea jotzen zailenetarikoa dela esaten da.

Fagota:



Fagota mihi bikoitzeko egurrezko musika haize-instrumentu bat da, oboearen

familiakoa. 156zmko altuera du eta gutxi gorabehera 250zmko luzera. Fagota, haize-instrumentuen soinuaren eremu baxua hedatzeko musika-beharrari esker existitzen da.

Klarinetea:



Mihi bakuneko instrumentua, egurrezko guztien artean hedapenik handiena du. Hau da, nota baxuak eta altuagoak eman ditzake. Mihi bakuna ebonita edo kristalezko ahokoari lotuta dago besarkadera baten bidez, eta musikariak putz egitean, tutua dardarazten du eta aire-zutabeak igaro egiten du.

Tronpeta:

Metalezko haize-instrumentu bat da, ahoko bat du airea botatzen den lekutik eta instrumentuaren notak konposatzeko balio duten pistoi batzuk. Tronpeta barrokkoa luzeagoa da, ondorioz, altuagoa, eta kasu gehienetan ez dauka pistoirik.



Tronpa:



Tronpa instrumentu zaharrenetarikoa da. Zaldiz ibiltzeko eta martxak egiteko erabiltzen zelako egin zen zirkulu-formarekin, erabilera errazteko. Jatorrian, animalien adarrekin eginda zegoen. Jotzeko, musikariak eskuineko eskua kanpaiaren barruan sartzen du eta honek sordinarena egiten du, beraz,

eskuaren kokapenaren arabera instrumentuak bere tinbrea aldatzen du. Beste eskuarekin notak sortzen dituzten balbulak jartzen dira martxan.

Tronboia:



Pistoiak erabili beharrean, makila bat erabiltzen duen metalezko instrumentu bakarra da. Tesitura aldetik oso ezberdinak dira, nahiz eta orkestran gehien erabiltzen dena tenorra den,

eta batzuetan baxua. Bere ahokoa tronpetarenaren antzekoa da. Jotzaileak, makila mugitzean, tutua semitonoetan luzatzen du eta serie harmoniko bat sortzen du zazpi posizioetariko bakoitzean, beraz, nota bakoitza zailtasunik gabe sortzen da.

Perkusio-instrumentuak: hemen afinatu eta afinatu gabekoak daude.

Afinatuen artean hauek dauzkagu orkestran:

Tinbala:



Kobrezko edo beira zuntzezko katilu da, larruzko edo tenkaturiko plastikozko adabaki batez estalia. Tinbalak adabakia hiru prozedura bidez

tenkatuz edo laxoan utziz afinatzen dira: biraderarekin, pedalarekin edo giltzarekin.

Talka-platera



Metalezko bi disko dira, erdian zulo bat dute eta larruzko diadema baten bitartez heltzen dira. Soinua sortzeko bata bestearen kontra jotzen dira. Goitik behera edo ezkerretik eskuinera egin daiteke.

Triangelua



Bere izenak dioen bezala, metalezko triangelua da, erpinetariko batean irekita, eta soinua ateratzeko metalezkoa ere baden makilatxo batekin jotzen da.

Zuzendaria

Vicente Egea

Cocentainan (Alacant) jaio zen 1961ean. Alcoy, Alacant, Iruñea, Madril eta Donostiako kontserbatorioetan ikasi zuen eta nota bikainak lortu zituen Tronpeta, Konposizioa, Koru-zuzendaritza eta Orkestra-zuzendaritzan. Londreseko Royal Academy of Music (RAM) delakoan Orkestra-zuzendaritzako "*Certificate of Advanced Studies*" lortu zuen, Espainiako Bankuak eta RAMk berak beka emanda. New Yorkeko Manhattan School of Music delakoan Orkestra-zuzendaritzako "*Professional Studies Certificate*" lizentziatzen lehen "*Special Student*" izan zen.

Era berean, Piano, Perkusio, Biolin, Elektroakustika, Jazz, Musika-Informatika, Ahots-Teknika eta Zinema Musika ikasketak burutu ditu. Lau urtetan zehar, Agustin Gonzalez Aciluk eta Ramon Barcek ematen dituzten egungo konposizio eta soziologia ikastaro estraofizialekara joan da. Espainiako Orkestra Nazionalaren zuzendari laguntzailea izan zen 1992-1993 denboraldian zehar eta Madrilgo Reina Sofia Goi Mailako Musika Eskolako Ikasketa-Burua 1993-1994 ikasturtean zehar. "Iruñeko Taldea" Konpositore-Taldearen sortzaileetarikoa bat da eta Eusko Ikaskuntza-Euskal Azterketen Elkarteko kide. SGAE, Asociación de compositores Vasco-Navarros, ACCMMIC, COSICOVA eta WASBE elkarteetako kide ere bada.

Honako erakunde hauengandik konposizio-enkarguak jaso ditu: Nafarroako Gobernua: “4 Interpretaciones Oníricas”, “Concerto Grosso” eta “Pianoa eta Orkestra Ren jotzeko kontzertua”. Iruñeko Udala: “Maldició”, “Da Capo col-legno”, “Los Jueces de los Infiernos”; “Poema Sanfermicoa” izeneko enkargua eta grabaketa; “Camino Hermético” CDaren enkargua, argitarapena eta grabaketa. Pablo Sarasate Orkestra: “Tregua para orquesta”. Baluarte Biltzar Jauregia eta Auditoriuma: “Obertura Baluarte”. Eta abar.



Pirinioetako Gabera-Taldeko (AKT) zuzendari gisa egungo garaikide ugariren estreinaldi ugari egin ditu 1985etik. Honako lekuetako udal bandak zuzendu ditu: Madril, Alacant, Bilbo eta Gasteiz. Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioaren Orkestra Sinfonikoa zuzendu du.

Abruzzese de L'Aquila Orkestra Sinfonikoa (Italia); Londreseko RAMen "Symphony Orchestra" eta "Sinfonia"; Iruñeko Pablo Sarasate Orkestra; Savaria Chamber Orchestra; Manhattan Contemporary Ensemble; Manhattan Philharmonia Opera Ensemble; Euskadiko Orkestra Sinfonikoa; Chamartineko Orkestra Sinfonikoa; Amadeus Orkestra; JONDE; Amalur Ganbera-Orkestra; Madril Erkidegoko Orkestra; Galiziako Erret Filarmonika, Sax Ensemble, Erret Antzokiko Orkestra Titularreko Bakarlaria (Madrilgo Orkestra Sinfonikoa). Eta abar.

BIGARREN EKITALDIA: IKUSKIZUNA

Pablo Ramosek zuzendutako Ali Baba operaren ikuskerak hainbat mundu ditu erreferentzia. Hauen helburu nagusia, espazioak eta antzerki egoerak sortzeko, magian eta irudimen-jokoan oinarrituriko ikus-hizkuntza ezartzea da. Hiru erreferentzia-mundu hauek, ikuslearen ohiko testuingurutik kanpo dauden osagaietatik abiatuta, hura antzerki-jokoan eta istorio baten bistaratzean sartzera gonbidatzeko adierazpen-osagaiak ematen dizkigute.

Gure asmoa ez da inondik inora mundu hauetariko bakoitza irudikatzea, baizik eta haietatik osagai isolatuak hartzea geure istorioa kontatu ahal izateko. Proposamen honekin, Javier Saezek istoriotik bertatik aldendu nahi du ikuslea eta testuak ezkutatzen duen mezuaren berri eman. Bere aukera batez ere Iñigo Casaliren musikak duen izaera magiko eta erakargarritik eta *“Mila eta bat gauak”* liburuan dagoen erreferentziazko ipuinaren inguruan Pablo Valdesek egindako interpretaziotik eratortzen da.



- Lehenik, zirku-espazioa eta zirkuaren beraren ikuskizuna daukagu, gure istorioa garatzeko espazio ezberdinak eraikitzeko osagaiak emango dizkigun erreferentzia. Zirkuko olanak, erremintak, gailuak, trapezioa, aulkiak, kutxa izartsuak, alfonbrak eta abarrak erabiliko ditugu.

- Bigarrenik, irudimenaren magia eta boterea ere bertan egongo dira zuri-beltzean botatako irudietan, mende hasierako zine mutuaren ondorengoak. Agertokian erabiliko diren kamerek, sekuentzia ezberdinak anplifikatu, mugitu eta hurbildu egiten dituzte ziklorama erabiliz.

- Hirugarrenik, galdutako basamortu bat istorioaren kultur ingurune gisara, aldi berean nomaden edo errefuxiatuen kanpamentuetako ikuskera ibiltaria nabarmenduz kontatu nahi duguna.

Koldo Taintak garatutako argiztapenak garrantzi bikoitza hartzen du muntaia honetan; bere ikus-erakargarritasunagatik ez ezik, bere antzerki-indarragatik ere. Argiak era poetikoan azaltzen ditu pertsonaien erreakzioak eta, gainera, haien soziologien osagai definitzaile bihurtzen da. Era berean, akzioa gertatzen den espazio bakoitzaren bereizgarria da. Jantziei dagokienez, hiru mundu ezberdin hauekin ere nahi dugu lan egin, baina haietariko bat ere zehazki birsortu gabe. Estetika modernoa hartuta, zirkuko eta egungo ekialdeko jantzien osagaiak nahastuko ditugu pertsonaiak zehazki definituko dituen joko estetikoa proposatuta.

1. Koadroa: Istorioa



Hau Pablo
Valdesek “*Mila eta
bat gauak*”
jatorrizko
ipuinen gainean
sortu duen istorioa
da. Gure bertsioak
Zulemak musikari
eta bere biolinari
dion maitasunari
buruz hitz egiten

du, hori baita ondorengo korapiloa eragiten duena. Horrelakoa da:

Kassim mailegu-emailearen etxean. Kassim zaharraren oihuak bere
bulego xumean entzuten
dira: “*Lapurtu didate!
Zenbatu, zenbatu!*”. Bere
langile Selinak, akituta,
obeditu egiten dio eta berriz
zenbatzen ditu kutxatilako
billete guztiak abako batekin
lagunduta. ALI BABA biltzen
da bere hamaika urteko
Zulema alabarekin. Alik diru
pixka bat eskatzen dio
anaiari Zulemaren biolin



puskatua ordaindu ahal izateko. Kassimek ezetz esan eta Zulemari eskola
utzita berarentzat bulegoan lan egitea proposatzen dio, baina honek uko egiten
dio.

Basoan. Eskolarako bidean, Zulemak beste bide bat hartzen du eta
HAUR LAPURREN tropela deskubritzen du, OSMANen agindupeko harrapari

meharrak, zakuak gainean daramatzaten esklabo txikien buruzagia eta kartzelaria den gizon tripontzia. Buruzagiak egindako seinalearekin batera,



umeeek zera oihukatzen dute: “Ireki, Sesamo!”. Mendiko harria pixka bat irekitzen da eta lapurrak azkar sartzen dira koba magikoaren barruan. Lapurrek alde egitean, Zulemak zera xuxurlatzen du: “Ireki... Sesamo!”. Harria berriro irekitzen da.

Koba barruan. Diruaren distirak argiztatzen du: Lekua kolore guztietako milaka billetez beteta dago eta gordetzen dituzten kutxak gainezka daude. Zulemak zintzotasunaren inguruan aitzak esandako hitzak gogoratzen ditu, baina azkar asko erabakitzen du egurrez betetzeko zeraman zakua billetez betetzea biolina konpontzeko.

Aliren etxean / Kassimen etxean. Bi etxeetan gertatzen dena aldi berean ikusten dugu. KASSIMek kobaren berri izan eta Ali Baba mehatxatzen du bertara eraman dezan. Eta koban sartzen dira.

Koba barruan. Bakarrik geratzen da eta lapurrak sartzen dira, baina ez dira ohartzen. Ondoren, lapurrek alde eginda, KASSIM esnatu egiten da eta dirua eramaten du. Koba uzten du. Lapurrak itzultzean



lapurreta deskubritzen dute eta Zulemaren biolin puskatua ikusita, biolin bat duen neskabila bat bilatzea erabakitzen dute, hark eramango baititu lapurrarengana.

Kassimen etxean. Bankari aberatsa bihurtu da. Osman merkatari italiarrez mozorrotuta eta lapurrak kutxatan ezkutatuta heltzen dira. Selinaren dantza baten ondoren, Zulemak eta berak iruzurtiak deskubritzen dituzte eta Osmanek eta Kassimek euren miseriak eta delituak ordaintzen dituzte.

2. Koadroa: Libretista

Libretista, hau da, *Ali Baba eta berrogei lapurrak* operaren testua idatzi duen pertsona, Pablo Valdes da. Ezagut dezagun pixka bat gehiago.



Madrilgo William Layton Antzerki Laborategian ikasi zuen Nafarroako Gobernuak beka emanda (1985-1988) William Layton eta Jose Carlos Plaza irakasleekin. Txikitan solfeoa eta biolina ikasi zituen, horregatik gozatzen du hainbeste musika eta antzerkia nahasten direnean.

Antzerki-Zentro Nazionalean lan egin du honako zuzendarien zuzendari-laguntzaile gisa: Jose Carlos Plaza (*Hamlet, Orestíada, Comedias Bárbaras*), Miguel Narros (*Marat-Sade*), Josefina Molina (*Los últimos días de Emmanuel Kant*), Eduardo Funetes (*Dos historias del mar y la aventura*) eta Alvaro del Amo (*La Emoción*). Hainbat antzezlan zuzendu ditu: *Tres sombreros de copa*, *El horroroso crimen de Peñaranda del Campo*, *El último cuarto de hora de la pacificación*, *Leoncio y Lena*, *La muesa del miedo*, *Historia de una muñeca abandonada*, *Santa Juana de los mataderos*, *El mundo de Puff* eta abar.

Idatzi edo egokitu dituen obra batzuk honakoak dira: *Dos, uno y ninguno* (Sambhú Antzerkia, 1989), *El truco de la paloma* (Iruña Pequeño Teatro, 1992), *La sopera sin dueño* (1996), *¿Y qué?* (Dar-Dar Teatro, 2001), *Natatxa* (Txalo Produkzioak, 2002), *Enperadorearen traje berria* (Nafarroako Ganbera-Opera 2003) eta *Dulce de membrillo* (Arriaga Antzokia, Artebi, 2006).

Honako sari hau lortu du, besteak beste: La Lagunako Unibertsitateko *Domingo Perez Minik* Autore-Antzerki Saria (2001). *Dulce de membrillo* lana SGAEren Antzezlanen Lehiaketan hautatua izan zen (2005).

“Ali Baba eta berrogei lapurrak” operaren testua umorez josita dago. Hona hemen lau adibide:

2. Koadroa

Haur lapurrak heldu eta Ali eta Zulema aurkitzen dituzte basoan.
Eta zera abesten dute...

No tengáis miedo de los ladrones.
No tengáis miedo, mamás y papás.
Sólo queremos vuestros millones.
Podéis quedaros con lo demás.

No somos vagos ni malhechores
aunque lo diga la autoridad.
Somos pequeños trabajadores
que limpian casas por la ciudad.

Dinero negro, dinero blanco...
¿A quién le importa la calidad?
Robamos tiendas, robamos bancos,
y no cerramos por Navidad.

Ya no hay escuela, ya no hay lecciones.
¡Qué bien vivimos sin estudiar!
No somos niños, ¡somos ladrones!
Hemos nacido para robar.

3. Koadroa

Zulema ALIREN ETXERA heltzen da. Egur-azao batetik biolin puskatua ateratzen du eta honetatik lapurtutako txanponak.

Kontuak egiten ditu abakoak lagunduta, bitartean Kassimek bere leihoan jarraitzen du txanpona behatzen.

ZULEMA. Un violín nuevo, mil ciento tres,
una de oro vale por diez,
cinco de plata, cuatro de cien,
diez y diez veinte y treinta cincuenta más
cinco que llevo por ocho cuarenta le
sumo catorce más nueve por diez
llevo doce por siete más nueve decenas más
cuatro por ocho por cinco centenas que
suman doscientas, quinientas ¡y mil!
¡Puedo comprar un violín!

4. Koadroa

Lapurrek eguneko lapurreta ospatzen dute koban eta zera abesten dute...

Estimados ciudadanos
de la ciudadanía:
los ladrones trabajamos
para su seguridad.
Si ya os hemos visitado,
¡os podéis despreocupar!
Lo que ya os hemos quitado
nadie os lo podrá quitar.

HAURRAK. ¡Duerme tranquilo!
¡Duerme tranquilo!

Atracamos de mañana
cuatro bancos a la vez.

Y al sultán de una sultana
le robamos el chalé.

Diez carretas italianas
cargaditas de café
y una larga caravana
de camellos sin carné.

Prometemos ser honrados
y hacer caso a los papás:
lo que hoy hemos robado
no lo robaremos más.

5. Koadroa

*OSMAN sartzen da, kapa, kapela, kokospekoa eta bibotearekin mozorrotuta.
Diruz betetako kutxa bat dakar arrastaka.*

OSMAN. Io soy don Vito,
Vito Luciano.
Soy comerciante
napolitano.
Vendo tabaco,
compro café,
luego en Italia
lo vuelvo a vender.
Lalala lala...

Con mis camellos
en caravana
cruzo el desierto
cada semana.

Hoy he vendido
a un negociante
mil ochocientos
cincuenta diamantes.
¡Mille ottocenti
cinquanti diamanti!

lo soy don Vito,
soy Italiano.
¡Un deslumbrante
napolitano!
Hoy he ganado
mucho dinero
y ando buscando
un gran banquero.

3. Koadroa: Jatorrizko istorioa

Ali Baba [fikziozko pertsonaia](#) da, [Mila eta bat gauak](#) liburuan *Ali Baba eta berrogei lapurrak* abentura-ipuinean deskribaturikoa. Batzuek uste dute istorio hau transkribatzaile europar batek, [XVIII. mendeko Antoine Gallande](#) orientalista [frantsesak](#) gehitu ziola liburuari, [Alepoko ipuin-kontalari maronita](#) bati beharbada ahoz entzunda.



Istorioak, Bija tribuko Ali Baba erregearen leinu sudandarrean ditu sustraiak. Erregeak uko egiten zion Al-Mutawakkil-i, Bagdadeko hamargarren kalifa abbasíari, zergak ordaintzeari. Errege matxinoak mendietako urre-meategi guztiak itxi zituen eta Itsaso Gorriko eremura joaten ziren funtzionario guztiak atxilotzen zituen. Bagadadek gudarostea bidali zuen mundu islamiarreko ezinbesteko urre-merkatuaren gaineko botereari eusteko (Gurutzaden aurreko garaian, urre abbasiaren % 60 Sudanetik zetorrela uste zen) eta bost urtetan matxinada zapaltzea lortu zuen. Bagdadera eramana, Ali Babak bere gizonak ezkutatutako urre guztia eman zion kalifari. Altxor handiaren eta garaitutako erregearen erakusketa publikoa egin zen Samarra

hiribururako bidean hiri garrantzitsu guztietan, eta horrela koben eta lapurren kondaira sortu zen. Azkenean, Ali Babari amnistia eman zitzaion eta itzultzean urrea eman zien bere bideko hiri nagusietako behartsuei, borrokatu zituen musulmanekiko borondate oneko keinu.

Jatorrizko istorioak Ali Babari buruz hitz egiten du. Arabiako egurgile gizajo bat da eta egun batean, kasualitatez, lapur-talde handi bat altxorraren ezkutalekua bisitatzen entzuten du egurra mozten ari den basotik. Lapurren altxorra sarrera magikoki itxita geratzen zaion koba batean dago: “*Ireki, Sesamo*” hitzekin zabaltzen da eta “*Itxi, Sesamo*” hitzekin itxi. Lapurrek alde egiten dutenean, Ali Baba koban sartu eta altxorraren zati bat etxera eramaten du.



Ali Babaren anaia aberatsak, Kassimek, anaiaren bat-bateko aberastasuna deskubritzen du eta honek kobaren berri ematen dio. Kassim bertara joaten da altxorraren zati bat eramateko, baina aberastasunekiko dirugoseagatik eta urduritasunagatik kobatik ateratzeko hitz magikoak ahazten zaizkio, eta lapurrek bertan aurkitu eta hil egiten dute. Kassim itzultzen ez denez, anaia kobara joaten da haren bila eta gorpua aurkitutakoan etxera eramaten du. Kassimen familiaren Morgiana esklabo azkarraren laguntzarekin, bera balitz bezala ehorztea lortzen dute haren heriotzaren susmorik eragin gabe.

Lapurrak, gorpua desagertu dela ikusita, beste norbaitek ere euren sekretua ezagutzen duela ohartzen dira, eta topatzeko erabakia hartzen dute.

Lehenengo saioak Morgianak zapuzten ditu, orain Ali Babaren familiaren zerbitzupuan dagoelako, baina azkenean lortzen dute jakitea Aliren etxea non dagoen.

Lapurren buruzagiak Ali Babaren abegi ona behar duen olio-merkatariarena egiten du, berarekin berrogei treskaz zamatutako mando bana daramala, bat olioarekin eta beste hogeita hemeretziak taldeko lapurrekin. Lapurrek Ali Baba hil nahi dute hau lo dagoenean, baina berriro ere Morgianak deskubritu eta plana zapuzten du, lapurrak ezkutatuta dauden treskak olio irakinez betez. Buruzagia bere gizonen bila joaten denean, denak hilda daudela ohartu eta ihes egiten du.

Handik denbora batera, mendeku hartzeko, lapurren buruzagia merkatari ezartzen da eta Ali Babaren ilobaren laguna egiten da (orain Kassimen negozioaz arduratzen dena). Honen etxean afaltzera gonbidatzen dute, baina Morgianak ezagutu eta daga batekin dantza bat egiten du mahaikideen omenez. Despistatuta dagoen une batean, daga bihotzean sartzen dio lapurrari. Horrela, istorioak amaiera zoriontsua dauka guztientzat, Kassim eta berrogei lapurrentzat izan ezik.


4. Koadroa: Pertsonaiak

Ali Baba operan bost pertsonaia bakarlari baino ez daude. Inor ez da besteak baino garrantzitsuagoa, baina hobeto ezagut ditzazun, operari izena ematen dionarekin hasiko gara:

Ali Baba

Inor zirikatu gabe bizi den egurkari zintzo eta ona da. Gure bertsioan Zulema deitzen den alaba bat dauka, izugarri maite duena, eta harengatik edozer gauza egingo luke, baita Kassim anaiari aurre egin ere.

Ali Babak tenor-ahotsa du.



Kassim



Aliren anaia. Diruzalea
eta zekena, dirua
besterik ez du buruan
eta horrek galtzen du.
Kassimek tenor-ahotsa
du.

Bi pertsonaia hauek
taldekatu ditugu eta
orain tenor-ahots

berezia aztertuko dugu.

TENORRAK

Tenorra ahots maskulinoaren erregistro altua duen abeslaria da. Baritonoarengandik, ahots baxuagokoa, tinbre argi eta distiratsuagatik bereizten da, eta kontratenorrarengandik ahotsaren bular-durundiagatik.

Tenor hitza latinezko *tenere*-tik dator: “*euts*” aditzetik, Errenazimenduko eliza-musikan tenorrek nota luzeei eusten baitzieten beste ahotsak aho-melismak abesten zituzten bitartean.

Tenorraren erregistroa si2tik sol 4ra doa.

Funtsean, hiru tenor mota daude burutu dezaketen erreperitorioaren arabera:

-Tenor Arina: Ahots altu eta arineneko tenorra da, normalean beste tenorrarena baino ahots txiki eta arinagoarekin.

-Tenor Lirikoa: Ahots indartsu eta altuko tenorra da, baina tenor arinak baino soinu ozenagoarekin. Gehien baloratzen den tenorra da burutu dezakeen erreperitorio zabalagatik.

-Tenor Dramatikoa: Ahots oso handiko tenorra da, baritonoarengandik hurbil dagoen kolorearekin, eta nahiko ahots astunekoa, garapen motela eta orkestra asko daukaten operak egiteko bikaina.

Ali Baba eta Kassimen paperak José Luis Sola eta Alfonso García-Noain tenorrek jokatzen dituzte.

Osman

Lapurren erregea.
Maltzurra da.
Kassim baino
okerragoa,
lapurrak erabiltzen
baititu lapurtzeko
eta aberats
bihurtzeko, eta
gero ez die jaten
ematen. Haurrak
koba irekitzeko
behar ditu eta
horregatik ez ditu



alde batera uzten. Pertsonaiaren maltzurkeria gehiago nabarmentzeko,
Osmanen ahotsa baxua da. Baritonoa da.

BARITONOA

Baritonoaren ahotsa tenorrarena baino baxuagoa da eta materialaren kolorearen eta pisuaren arabera, baritono dramatikoak eta lirikoak edo nobleak daude, adin handiago edo txikiagoko pertsonaiak, hurrenez hurren, izan ohi direnak.

Baritono-ahotsaren barruan honako barianteak aurkitzen ditugu:

Nabarmenena Baritono baxua edo baxu buffoa, koloreak bereizten du bere baritono-ahotsa, baritono gehienena baino ilunagoa eta Baxuarenarenetik hurbilago dagoen erregistro batekin.


Baritono dramatikoa. Indar dezenteko eta errendimendu oneko ahotsa baritono-erregistro osoan, bereziki eremu baxuan.

Baritono verdia Ahots indartsu eta bizia, eremu altuan irauteko gaitasun handiarekin.

Osmanen pertsonaia Pablo López baritonoak jokatzen du.

Zulema

Aliren alaba. Buruan jolastea eta biolina jotzea besterik ez duen neskatila. Bere aita Aliren zintzotasuna heredatzen du eta amaieran Selinarekin bat egiten du Kassim eta Osmanen iruzurra agerian uzteko.



Selina

Kassimen neskamea, Osmanen mozerroaren kontu guztia eta lapurren presentzia deskubritzeko oinarritzko papera duena.



Selina eta Zulema sopranoak dira. Ezagut dezagun hobeto ahots mota hau:

Sopranoa ahots femeninorik altuena da eta tinbrerik argiena eta distiratsuena du. Gaztelaniazo hitza italierazko *soprano* hitzetik hartu zen, “*subirano*” edo “*nagusi*” esan nahi duena. Hau, era berean, latinezko *super*, *supra*-tik dator: “gainean, -(e)ren gainetik”.

Hainbat mota daude ahotsaren altuera eta norainokoaren arabera.

Soprano arina, liriko arina, koloratura-dramatikoa edo bizkortasun-dramatikoa, lirikoa, liriko spintoa, mezzosopranoa.

Operan, Zulema eta Selinaren paperak Selma Sola eta Ana Olaso sopranoek jokatzen dituzte.

Iratxoak errealitatearen eta fantasiaren artean nabigatzen duten bi pertsonaia dira. Zirku-munduko biztanleak dira. Haiek mugitzen dituzte istorioaren hariak eta, gainera, dantzatuz mugitzen dira gauza bakoitza bere lekuan jartzeko.

Lapurren korua

Osmanen agindupeko lapurrak. Kaleko umeak, bizirik irauteko lapurtzera behartuta dauden familiarik gabeko pariak. Ez dira gaiztoak, beharra dutelako dira lapurrak. Amaieran haien zintzotasuna erakusten da eta Selinari eta Zulemari laguntzen diete.

Ahots zuriak. Oraindik benetako dimentsioa hartu ez duten haurren ahotsak dira. Koru eta eskolanietan taldekatu ohi dira.

Nafarroako Ganbera-Opera abesbatzako eta Opera Eskolako *Lapurren korua* Erika Imízcozek zuzendutak.



5. Koadroa: Muntaia posible egiten dutenak



Dagoeneko ezagutu dugu *Ali Baba eta berrogei lapurrak* operan musika konposatu duen Iñigo Casalik, testua egin duen Pablo Valdesek, partitura jotzen duen orkestrak, Vicente Egea zuzendariak eta pertsonaiak abestuz jotzen dituzten abeslariak duten papera.

Baina opera batean segidan azalduko ditugun gauza gehiago daude.

Eszenografia: Dekoratu da, hau da, oihala igotzen denean ikusten den hori eta pertsonaiei espazio batean ekintza garatzen uzten diena.

Ali Baba-n,
 eszenografiak Mila eta
 bat gauetako
 basamortua
 gogorarazten du, baina
 zirku eta fantasia
 nahasketarekin.



Argiztapena:

Beharrezkoa da agertokian gertatzen dena ikusteko ez ezik, ezberdinak sortzeko ere. Horregatik erabiltzen dira foku mota ezberdinak, efektu eta koloreekin. Koldo Tainta argiztapenaren diseinatzailea da ganbera-operan.



Jantziak: Pertsonaiek soinean daramatzatenak dira. Hemen Ekialde Ertaina gogorarazten digute, baina garai zehatzik gabe. Lapurrak, egungo umeak izan litezke. Denek dute ekialdeko eitea, iratxoek izan ezik, zirkukoak baitira. Diseinatzailea Edurne Ibáñez da.

Ile-apainketa eta makillajea: Arancha Otelek ezberrik gabe operaren izaera guztia sendotzen duen makillajea diseinatu du. Gogorra lapurrentzat eta Osmanentzat, honen izaera ordezkoko bizar batekin gogortzen du. Kassimek ere Charloten pelikuletako pertsonaia bat



gogora ekartzen diguten ordezekoak dauzka. Beste pertsonaia guztien ile-apainketa zein makillajea naturalagoak dira.



Eszena-zuzendaritza:

Eszena-zuzendariak pentsatu eta diseinatzen du pertsonaiek egiten duten guztia, nola mugitzen diren, nola erreakzionatzen duten eta abar, eta partitura eta testua interpretatzeaz eta paperetik agertokira

igaroarazteaz arduratzen da. Kasu honetan, zuzendaritzak operaren izaera magikoa eta fantasiakoa sendotu nahi izan du, horregatik pertsonaiak fantasiarekiko konexioan mugitu eta dantzatzen dira, errealitatearekin inolako lotura motarik gabe. Zuzendaria Pablo Ramos da.



HIRUGARREN EKITALDIA: JARDUERAK

1. Koadroa. OPERA-HIZTEGI TXIKIA

Operari buruzko hitz batzuk jasota hiztegi txiki bat prestatu dugu ezagut ditzazun.

Abeslariak: Antzerkian antzezlanak aktoreek burutzen dituzten bezala, operan abeslariak ematen diete bizitza pertsonaiei. Abeslarien ahotsak aldatu egiten dira gizon, emakume edo ume diren arabera. Gainera, ahots altuak eta baxuak daude gizon eta emakumeen ahotsen barruan.

Argiztapena: Argi-efektu pila bat ikusiko duzue: egunez, gauez. Eta, noski, foku pila bat dago eta efektu horiek sortzeko haiek maneiatzeaz arduratzen den pertsona bat. Bizitasun handia ematen dio istorioari.

Aria: Pertsonaia bakoitzak abesten dituen abestiak dira. Haien bidez, pertsonaiek euren emozioak adierazten dituzte.

Duoak, hirukoteak, laukoteak: Hainbat pertsonaiek aldi berean abesten dituzten abestiak dira. Musikari ikusgarritasun eta joko gehiago emateko balio dute. Hemen ekintza ere gelditu egiten da musikari bakarrik erreparatu ahal izateko.

Errejidorea: Tokatzen zaienean, denak agertokira ateratzeko prest egoteaz arduratzen da.

Errezitatiboak: Batzuetan ez dugu oso ondo jakiten abesten edo hitz egiten ari diren, ez baitira abestiak. Tresna gutxirekin musika bakuneko zatiak dira, hauetan garatzen da ekintza.

Eszena-zuzendaria: Hau ez duzue ikuskizun bitartean ikusiko, baina oso garrantzitsua da berak esaten baitie agertokian dauden guztiei nola mugitu

behar diren, non jarri, zein aurpegi jarri,... Ikuskizunaren antzerki-zatiaz arduratzen da.

Ikuskizuna: Hitz hau oso garrantzitsua da opera definitzen duelako. Opera ez da musika bakarrik, ezta antzerkia edo dantza bakarrik. Opera honen guztiaren batuketa da eta hau guztia batera ikuskizuna da: entretenitzeko agertokian jarritako osagai artistikoen multzoa.

Ile-apainketa: Jantziak eta makillajeak bezala, ile-apaintzaileak pertsona bakoitzaren ilea pertsonaia bakoitzak behar duenari egokitzen dio.

Jantziak: Makillajearekin batera, funtsezkoa da pertsona bakoitza pertsonai bihurtzeko. Jantziek egiten dute pertsona abeslari izatetik pertsonaia izatera igarotzea. Bakoitza janzten da pertsonaiak eta jantzien sortzaileak pentsatutakoaren arabera.

Konpositorea: Obrari musika jartzen diona da. Musika obrak une bakoitzean eskatzen dituen sentrazioak sortzen saiatzen da: alaitasuna, tristura, tentsioa, haserrea,... Horretarako daude abeslariak, koroa eta orkestra, eta libretoa garatu ahala erabiltzen ditu. Zati batzuk koroak bakarrik abesten ditu, beste batzuk pertsonaiek bakarrik, beste batzuetan denek batera, zati instrumentalak ere badaude (obertura, kasu).

Libretoa: Musika guztia testu honen gainean idazten da. Bere gainean musika egiteko pentsaturiko antzezlan bat bezalakoa da.

Makillatzailea: Makillajearen bidez abeslariak eder edo itsusi jartzen ditu (pertsonaiak eskatutakoaren arabera), ordezeko bizarrekin, adibidez. Denok pertsonaien inguruan dugun ideien ahalik eta antzekoena izatea eginarazten du.

Musika-zuzendaria: Obra guztian zehar bizkarra emanez duzuen jaun hori da, eta musika osoa konpositoreak irudikatu bezala ateratzeaz arduratzen da. Horretarako oso ondo ikasi behar du obra, gero abeslari eta orkestrarekin

entseatu eta, azkenik, denak zuzendu batutarekin (denbora guztian mugitzen ikusiko duzuen makilatxo hori), dagokienean abestu eta jo dezaten.

Orkestra: Konpositoreak musika garatzeko eta kolorea emateko erabiltzen duen instrumentu multzoa da. Margolari batek koadro bateko marrazkiak zuri-beltzean ez garatzeko erabiltzen duen kolore-paleta bezalakoa da. Horretarako 17 instrumentu daude 3 familiatan banatuta: Haria, haizea eta perkusioa.

Haria: Biolinak, biolak, txeloa eta kontrabaxua.

Haize egurra: Txirula, oboea, klarinetea, fagota.

Haize metala: Tronpeta, tronpa eta tronboia.

Perkusioa: Tinbalak, platerak, triangelua .

Pezioia: Orkestra leku honetan jartzen da, justu agertoki azpian. Horrela orkestra entzun egiten duzue, baina ez ikusi, agertokian gertatzen denari erreparatu ahal izateko.

2. Koadroa: Ali Baba

Operan Ali Baba eta pertsonaia pila bat ikusiko duzu, Zulema, Osman, Kassim eta Selina, esaterako. Denak gure herrialdearen oso ezberdina den eta urrun dagoen munduko eremu batean bizi dira. Ekialdea da.

Hartu Munduaren mapa bat eta bilatu ekialdean dauden herrialdeak, ikusiko duzu zein izen bitxiak dituzten. Afganistan, Irak eta abar.

Baina ez bakarrik izenak, baita ohiturak ere. Ezberdintasun nagusienetariko bat daukaten erlijioa da. Mendebaldean gailentzen dena katolikoa den bitartean, ekialdean Islama da.

Bilatu erlijio honi eta kristautasunari buruzko informazioa. Atera 10 ezberdintasun eta oso antzekoak diren 10 gauza. Ariketa honek balioko dizu erlijio hori praktikatzten dutenak hobeto ezagutzeko eta zergatik jotatzen duten era jakin batean ulertzeko. Modu honetan haiek errespetatzen eta haiekin batera bizitzen ikasiko duzu.

Gelan erlijio hau duen kideren bat baldin badago, eskatu gurasoek kontatzen zizkioten istorioak kontatzeko. Gauza bera egin dezakezu beste erlijio batzuk dituzten edo beste herrialde batekoak diren kideekin. Bakoitzak kultura baten istorioak kontatzeko proposatu eta horrela hobeto ezagutuko duzue munduan dagoen aniztasuna eta oso ondo pasatuko duzue.

Bide batez, hitz egiten duten hizkuntza ere ezberdina da. Gehiengoak Arabiera erabiltzen du. Bere forma eta ahoskera gazteleraren oso bestelakoa da.

Badakizue nola esaten den arabiarrez *Mila eta bat gauak*?

ميلي و مئيل فلأ

Ali Baba *Mila eta bat gauak* liburuko pertsonaia bat da. Erdi Aroko Ekialde Ertaineko ipuin arabiarren bilduma ospetsu bat da. Hiru ipuin multzok eratuta, liburuak era fantastiko eta pixka bat distortsionatuan India, Pertsia, Siria, Txina eta Egipto deskribatzen ditu. Liburua askotan moldatu da haurrentzat eta nerabeentzat mendebaldeko herrialde guztietan. Normalean, abenturak eta fantasia nagusi diren ipuinak aukeratzen dira hedatzeko. Bestalde, liburuak asko eragin zien mendebaldeko ipuinlariei, liburu honen istorioak elkarren artean lotzeko egitura imitatu zutelako. Robert Louis Stevenson ingelesa *Gau arabiar berriak* liburuaren egilea da, Londresen kokaturiko ipuin bitxien bilduma.

Bata bestetik sortzen diren ipuinak dira, hau da, bat kontatzean bat-batean beste bat sortzen da eta beste horrek beste ipuin bat sortzen du lehena bukatzen den arte, kaxak beste kaxa batzuen barruan bezala. Lehenengoan kontatzen da Shahriar sultanak emazteak traizio egin diola konturatu eta berak hil egin duela. Emakume guztiak hain gaiztoak direla sinetsita, bere Bisirrari egunero emazte bat lortzeko agintzen dio, bere gortesauen alabaren bat, eta gero, goizean hiltzeko aginduko du. Patu izugarri hau Sherezadek apurtzen du, bisirraren alabak. Hark plan bat pentsatu eta burutu egiten du: Sultanaren emazte gisa eskaintzen du bere burua eta lehen gauean erregea harritzea lortzen du ipuin bat kontatuz. Sultanari biziki gustatzen zaio ipuina, baina neskatilak egunsentia baino lehen ipuina eten eta amaiera hurrengo gauerako promesten dio. Horrela mila gauetan zehar. Azkenean, hiru seme-alaba edukiko ditu, eta mila eta bat gau ondoren, sultanak zigorra kenduko dio eta zoriontsu biziko dira.

Oso erraza da, Sherezadek bezala egin dezakezue. Kontatu amaierarik gabeko istorio bat eta denen artean bilatu bukatzeko era ezberdinak. Onena edo gehien gustatzen zaizuena gelan antzez dezakezue.

3. Koadroa: Operari buruzkoa

Ikusi duzue inoiz opera bat ?

Ziur baietz! *Ali Baba eta berrogei lapurrak* helduek ikusten dituzten operak bezalakoa da.

Egitura eta osagai berak ditu. Aldatzen den gauza bakarra gaia da. Oraingoan, garatzen den gaia ekialdeko ipuin tradizional bat da, baina moldatuta.

Ali Babak Obertura bat dauka.

Dagoeneko esan dugu Obertura opera irekitzen duen musika-zatia dela, baina XIX. eta XX. mendeko instrumentu-konposizio independente batzuei ere euren konpositoreek obertura deitu zieten, Felix Mendelssohnen *Hebridak* Obertura, kasu.

Lehenengo operek, hots, XVII. mende hasierakoek, ez zeukaten oberturarik, baina kantariek bai egiten zutela sarrera bat, eta bertan segidan garatuko zuten ekintzaren laburpena egiten zuten. Instrumentu-sarrerak XVII. mendearen erdialdera hasi ziren erabiltzen ohikotasunez, bi forma berezigarri garatu zirenean: obertura frantsesa, Jean Baptiste Lullyk garatua, bi zatik eratzen zuten, lehena motela eta estatikoa, eta bigarrena azkarra eta xehetasun kontrapuntistiko askorekin; eta obertura italiarra, Alessandro Scarlattik garatua XVII. mendearen amaiera aldera, hiru zati zituena: azkarra, motela eta azkarra. Hau izan zen sinfonia instrumentu-genero independentearen aurrekaria.

Hau Ali Babaren obertura da. Irakasleen laguntzarekin jo doinu hau gelan dauzkazuen instrumentuekin.

Alí Babá y los cuarenta ladrones.
Ópera en un acto
OVERTURA
(Melodía de Alí)

Música: Íñigo Casali
Libreto: Pablo Valdés

dolce cantabile

Flauta

8

15

Operaren beste osagai garrantzitsu bat aria da.

Aria bakarlari batek abesteko musika-pieza da, normalean orkestra-akonpainamenduarekin. Hitzak *airea* esan nahi du italieraz. XVII. mendean zehar, opera barrokoaren garaian, aria era hirutarrean idazten zen, A-B-A, eta *aria da capo* deitzen zitzaion ariaren amaieran lehen zatia errepikatzen zelako.

Hau da Ali Babak abesten duen aria Osman maltzurraren koba lehen aldiz deskubritzen duenean.

II- Dentro de la cueva

Iluntasuna.

*Argi-izpi batek **ALIREN BEGI** liluratuak agertzen ditu.*

ALI.	La noche anuncia que ya podemos soñar.
	Un niño sabe que un sueño dice la verdad.
	Ahora sueño
	que dentro de una montaña
	hay una cueva...
	Y ya no quiero despertar.

Pauso batzuk ematean, urrezko distira magiko batek argitzen du...

ALI. No sólo hay oro,
 en esta cueva hay algo más...
 que sólo un niño
 será capaz de encontrar.
 La maravilla está escondida...
 Si no es verdad
 la soñará.

*Argia KOBako sekretuak agertuz doa: hamaika kutxak distira egiten dute,
txanponez eta koloreko billetez gainezka.*

ALI. Cofres de oro y brillantes,
 perlas robadas al mar.
 Sueño de luz y diamantes
 para el que quiera soñar.

 Mis ilusiones dormían
 y me esperaban guardadas
 en una cueva escondida
 de una montaña dorada.

Aria de Alí Babá

(fragmento)

Música: Íñigo Casali
Libreto: Pablo Valdés

Alí Babá

pleno

Co-fres de o-roy bri - llan - tes, per-las ro -

ba-das al mar, - - - - - sue-ño de luz y dia -

man - tes pa-rael que quie-ra so - ñar, *ff* so -

ñar _____

Ausartu eta idatzi bertsoan nola ikusten duzun zure ikastetxea eta nolakoa den zure gela. Era berean, interesatzen zaizkizun beste gai batzuei buruz ere bertsoak idatz ditzakezu.

Esan dezakezu zeintzuk diren zure poeta gustukoenak eta gelan irakurri euren olerkietariko batzuk. Zuetariko bakoitzak egiten badu, Irakurketa-Klub bat sortu duzue. Zeinen ondo!

4. Koadroa: Haur lapurrak.

Ali Baba eta berrogei lapurrak operan azken hauek umeak dira. Osman maltzurak kaletik jaso ditu eta lapurtzera behartzen ditu. Euren burua kasu berean ikusi duten beste ume ospetsu batzuei bezala gertatzen zaie, izan ere, literatura unibertsaleko eleberri ospetsuenetariko den *Oliver Twist* eleberriko pertsonaia nagusiari buruz ari gara. [Charles Dickensek](#) 1837-1839 artean sortutako pertsonaiak garai viktoriarreko gizarte ingelesaren koadroa eskaintzen digu. Oliver Londreseko hanparen munduan sartuta dago eta benetako lanik ezagutzen ez duenez, Fagin maltzurak zuzentzen duen mutiko karterista batzuen taldean bete-betean sartuta aurkitzen du bere burua.

Gure istorioko haur lapurrak operaren une jakin batean errebelatu egiten dira, Osmanek ez baitie jaten ematen.

Osmanek tomatea marruskatzen du. Izututa, umeak jaiki egiten dira eta zakuak banan-banan eramaten dituzte, oso motel, esklaboek bezala xuxurlatuz:

{	HAURRAK.	Nada de comer. Nada de cenar. Sólo trabajar, trabajar, trabajar.
	OSMAN.	El amo soy yo. El amo es Osmán. Aquí manda Osmán, manda Osmán, manda Osmán.

Zakuz zaku, Kassim laster geratuko da agerian. Baina zortea dauka, ume batzuek uko egiten baitiote lan egiteari. Managaitzen korua hazi egiten da eta Osmani aurre egitera ausartzen da.

{	UMEAK.	Nada de comer.
		Nada de cenar.
		No hay que obedecer.
		No hay que trabajar.
{	OSMAN.	¡Aquí manda Osmán manda Osmán, manda Osmán, mandaosmandaosmandaosmán!!

Hau guztia kanon deritzon musika-forma batean abestuz gertatzen da.

Kanona izaera polifonikoko musika-konposizio forma bat da; bertan ahots batek doinu bat abesten du eta berau errepikatzen duten segidako hainbat ahotsak hainbat konpasetako distantziarekin jarraitzen diote, kasu batzuetan tonalitatean edo beste aspektu batzuetan aldatuta, eta hainbat ahots ezberdin batzen dira.

Lehenengo kanonak XIII. mendekoak eta Alemania, Frantzia eta Ingalaterrakoak dira.

XVII. mendean, eta ondoren Bachen obrarekin, kanonak sormenezko botere osoa garatu zuen. Aldi sinfonikoan zehar eta erromantizismoan, kanona bigarren mailan geratu zen. XX. mendearen hasieran, neoklasizismo eta serialismoarekin, garrantzia eta erabilera berreskuratu zituen. Pachelbel, Bach, Haydn, Mozart edo Beethoven bezalako konpositoreek ere kanonak idatzi zituzten.

Zeuen irakasleen laguntzarekin *Ali Baba eta berrogei lapurrak* operaren kanon hau abes dezakezue.

"Nada de comer" Canon (fragmento)

Coro de ladrones

Música: Íñigo Casali

Libreto: Pablo Valdés

Andante
ritmo

1ª Voz

Na-da de co-mer. Na-da de ce-nar. Só-lo tra-ba-jar. Tra-ba-jar, tra-ba-jar. Na-da de co-mer Na-da de ce-

2ª Voz

Na-da-de co-mer Na-da de ce-nar.

3ª Voz

nar. Só-lo tra-ba-jar. Só-lo tra-ba-jar, tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar.

Só-lo tra-ba-jar. Tra-ba-jar, tra-ba-jar. Na-da de co-mer. Na-da de ce-nar. Só-lo tra-ba-jar. Só-lo tra-ba-jar.

Na-da de co-mer. Na-da de ce-nar. Só-lo tra-ba-jar. Tra-ba-jar, tra-ba-jar.

Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Na-da. Na-da.

jar, tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar.

jar. Na-da de co-mer. Na-da de ce-nar. Só-lo tra-ba-jar. Só-lo tra-ba-jar, tra-ba-jar. Tra-ba-jar.

Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da.

Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da.

Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Tra-ba-jar. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da.

Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da.

Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da. Na-da.

5. koadroa: Basamortua eta zirkua

Aurretik esan bezala, *Ali Baba eta berrogei lapurrak* operak hainbat mundutan banatzen du ikuskizuna. “*Batetik, zirku-espazioa eta zirkuaren beraren ikuskizuna daukagu, gure istorioa garatzeko espazio ezberdinak eraikitzeke osagaiak emango dizkigun erreferentea. Zirkuko olanak, erremintak, gailuak, trapezioa, aulkiak, kutxa izartsuak, alfonbrak eta abarrak erabiliko ditugu. Eta bestetik, galdutako basamortu bat istorioaren kultur ingurune gisara, aldi berean nomaden edo errefuxiatuen kanpamentuetako ikuskera ibiltaria nabarmenduz kontatu nahi duguna*”.

Hortaz, bi mundu: Zirkua eta basamortua.

- . Izendatu ezagutzen dituzun zirkuko pertsonaia guztiak.
- . Emanaldi nabarmenetariko bat malabaristek egiten dutena da. Objektuak airera botatzen eta haiekin orekak egiten dituzte.
- . Saiatu gauza bera egiten. Lehenik bi pilotarekin eta gero hirurekin. Oso dibertigarria da.

Hemen dituzue telebistako Gaby, Fofo eta Miliki pailazoen abesti ospetsuenetariko baten hitzak. Gelan abes dezakezue.

Había una vez un circo
que alegraba siempre el corazón
lleno de color mundo de ilusión
pleno de alegría y emoción

Había una vez un circo
que alegraba siempre el corazón
sin temer jamás al frío o al calor
el circo daba siempre su función

Siempre viajar siempre cambiar
pasen a ver el circo

otro país otra ciudad
pasen a ver el circo
es magistral sensacional
pasen a ver el circo
Somos felices de conseguir
a un niño hacer reir (dos veces todo)

Había una vez un circo
que alegraba siempre el corazón
que alegraba siempre el corazón

Zirkuen historia antzinako Greziako hipodromoen garaikoa da. Gerlarien



itzulera ospatzeko herria ikuskizun baten inguruan biltzen zen eta zirku-emanaldi ugari aurkezten ziren. Gero, ohitura honek indarra hartu zuen Erromatar Inperioaren garaian, eta zirkua gurdi eta zaldi lasterketak burutzen ziren eraikin publikoa zen. Hain zuzen, zorionez, gaur egun ere munduko leku askotan zirku erromatarren aztarnak eta hondarrak daude, Tarragonan, adibidez.

Milaka urte dituen tradizio honek musika, dantza, koloreak eta magia elkartzen ditu eta testuinguru bikaina da alaitasuna topatzeko, barreari bide emateko eta akrobaziaz edo magiaz gozatzeko. Egun, bi zirku mota daude: tradizionala eta modernoa, eta azken honen adierazle gorena Eguzkiaren Zirkua da.

Eguzkiaren Zirkua edo Cirque du Soleil delakoaren jatorria 80ko hamarkadaren hasieran dago Baie-Saint-Paulen, Quebecetik gertu dagoen hiri txiki batean (Kanada). Hango kaleetan, dantza, musika-jolasak eta malabareak egiten zituen “Les Échassiers de Baie-Saint-Paul” izeneko kale-artista talde bat arreta deitzen hasi zen hirian, bereziki Guy Laliberté, ondoren Eguzkiaren Zirkua sortu zuena.

Basamortua

Ali Babaren beste agertoki handia da.

Basamortu bat euri gutxi jasotzen duen ekosistema bat da. Bizitza gutxi dagoelako ospea dute, baina hori basamortu motaren araberakoa da; askotan bizitza ugari dago, landareak hezetasun urrira moldatzen dira eta fauna, normalean, egunean zehar ezkutatu egiten da hezetasuna gordetzeko, eta honek esan nahi du basamortu-ekosistema lehorra dela. Hau da bere ezaugarririk handiena eta, ondorioz, ezta egungo teknologiek ere ezin dute gizarte taldeen ezarpena ahalbidetu. Basamortuek planetako urgaineraturiko eremurik hedatuena eratzen dute: guztira 50 milioi kilometro karratuko azalera du, gutxi gorabehera Lurraren azaleraren heren bat. Basamortuek badituzte antzeko ezaugarri batzuk. Basamortuko lurra hondarrez osatuta dago askotan, eta dunak egon daitezke. Basamortuen artean hauek daude: Sahara, Lurreko zabalena, Kalahari, Gobi edo Kara Kum.

Horrela, eta operaren bitartez, hain ezberdinak diren bi mundu batzen dira: basamortua eta zirkua. Eraitza: Iñigo Casali eta Pablo Valdesen *Ali Baba eta berrogei lapurrak*.



RECURSOS DIDÁCTICOS

VA DE ÓPERA

La historia de la ópera en 25 charlas

Marcel Gorgori/ Roger Alier

Vernal Editores. Barcelona

HISTORIA DE LA ÓPERA

Roger Alier

Ma non troppo música

Ediciones Robinbook. Barcelona 2002

EL LENGUAJE MUSICAL II LA JERARQUÍA DE LOS SONIDOS

Joseph Jofré i Fradera

Ma non troppo teoría y práctica de la música.

Ediciones Robinbook. Barcelona 2005

ESCUCHAR

20 reflexiones sobre música y educación musical.

Ediciones Fundación Orquesta Filarmónica de Gran Canarias. 1997

LA INTERPRETACIÓN DE LA MÚSICA

Thurston Dart

Mínimo Transito. A Machedo Libros S.A. 2002

EL LENGUAJE MUSICAL

Claves para comprender y utilizar la ortografía y la gramática de la música.

Joseph Jofré i Fradera

Ma non troppo

Ediciones Robinbook. Barcelona 2003

CD. COLORATURA

Manual sonoro de la voces de la ópera. DECCA 2002